

Elkarbizitza hobetzen duen birus bat aurkitu dute

*Hainbat zientzialarik
aurkikuntza harrigarriaren
berri emango du gaur Bilbon*

SONA HANDIKO HAINBAT ZIENTZIALARIK elkarbizitza hobetzen duen birus bat aurkitu eta deskribatu du. Birusak ez du oraindik izenik, baina zabaldu diren berri urrien arabera, elkarbizitzaren birusak hizkeraren mekanismoak hobetzen, komunikazioa errazten eta integratiorako al-darte ona suspertzen ditu. Ikerketa-lanetan aritu diren zientzialariak prentsa aurreko bat ematekotan dira gaur Bilbon birus harrigarriaren berri emateko.

Munduko lurralde ugarian elebitasunezko elkarbizitza da eredurik ugariena, eta aspaldikoa da elebitasunak elkarbizitzari dakarzkion onurei eta arriskuei buruzko debatea. Orain arte, ordea, inork ez zuen pentsatzen birus batek eragin zezakeenik komunikazioaren mekanismoan. Hala bada, aurkikundeak sekulako eragina izango du elkarbizitzan.

***Birusa deskubritu duten
ikerlari guztiak zeuden,
oharkabean, birusaren
mende***

Dena den, zuhurrak izatea komeni da: deskubrimenduan parte hartu duten ikerlariek ere erabateko isiltasuna eta diskrezioa gordetzen ari dira oraindik izenik ere ez duen elkarbizitzaren birusari buruz. Hala ere, deskubrimenduak, konfirmatuko balitz, sekulako mesedeak ekarriko omen dizkio elkarbizitzari eta, zehazkiago, hizkuntza hegemoniko baten edo gehiagoren itzal luzearen pean bizi diren euskara bezalako hizkuntzei. Bere nortasuna isilean gorde nahi izan duen adituetakobatek, M.S.O. kimikariak, aitortu duenez, “harro geunden ADNaren katea irakurri dugulako; birus deskubritu berria dioten bezalakoa bada, beste deskubrimendu horren parekoa da gutxienez”.

Ikerlariak Saran

Axular bizi izan zen Sarako erretore etxean kokatu dute ikerkuntzarako laborategia, ia bi urtez eta sekretu osoan, hainbat diziplinatako ikerlarik. Sarako dendari adineko batek esan digunez, “jakin nuenean ikerlariak zeudela erretore-etxean bilduta, On Joxe Miel Barandiaranekin gogoratu nintzen. Hemen erbesteratuta bizi zenean, Euro-

pa guztiko zientzialariak etortzen zitzaizkion bisitan, eta, orduetik, zientzia babesten duen herri bat da Sara”.

Elebitasunak elkarbizitzari dakarzkion onurei eta arriskuei buruz eztabaidatzea zen Saran bildutako ikerlarien asmoa. Eta aztertzen hasi zirelarik zer ote zen bat-batean kezka bera eragin zien gertakaria, inork espero ez zuen miraria ekarri omen zuen ikerlarion lanak: elkarbizitza hobetzen omen duen birusaren deskubrimendua.

Aurkikuntzarekin harrituta, behar zituzten bitarteko ekonomiko eta teknologikoak eskuratu eta gero, ikerlariek elkarbizitzaren birusa aztertzen eman dute denbo-

***Ukan birusak
elkarbizitza suspertzen
du eta komunikazioa
errazten***

ra. Sekretupeko neurri handiak hartu baitituzte, ez da aurkikundeari buruzko ezer zabaldu, ezta Saran bilduta dauden ikerlarien izenik ere. Zabaldu den bakarra, ikerlari guztiak zeudela birusaren mende, eta birus hori euskaldunen hizkuntz eskubideen aldekoa dela.

